

**PENTSIO-PLANAREN FUNTSEZKO DATUEN DOKUMENTUA:**

**ANDALUZIAKO EKONOMIALARIEN KONTSEILUA**

**AUTONOMOENTZAKO ENPLEGUKO PENTSIO-PLAN SINPLIFIKATUA**

**1. Pentsio-planaren arrisku-adierazlea**

1	2	3	4	5	6	7
---	---	---	---	---	---	---

<= Potentzialki errendimendu txikiagoa

Potentzialki errendimendu handiagoa =>

<= Arrisku txikiagoa

Arrisku handiagoa =>

Datu honek planaren arriskua adierazten du, eta kalkulatu egin da oinarri hartuta fondoaren ondarea ziurrenik inbertituko den aktibo-moten jokabide historikoa. Hala ere, arrisku-maila denboran alda daitekeen aldagai bat izanik, adierazlea neurri estatiko bat da, eta ez du aurrez ezartzen planaren arrisku-profilaren etorkizuna.

**2. Pentsio-planaren likideziari buruzko alerta**

“🔒🔒 Prestazioa kobratzea edo berreskurapen-eskubidea erabiltzea soil-soilik egin daiteke estalduran jasotako kontingentziaren bat, pentsio-plan eta -fondoaren arautegian jasotako likideziako edo aurretiazko erabilerako salbuespenezko kontingentziaren bat gertatzen denean”.

“🔒🔒 Mobilizazio-eskubideen, prestazioen eta likideziako edo aurretiazko erabilerako salbuespenezko kasuen balioa dago pentsio-fondoaren aktiboaren merkatu-balioaren mende, eta galera garrantzitsuak eragin ditzake”.

**3. Definizioa**

Pentsio-planak dira borondatezko aurreikuspeneko aurrezki-produktu bat, pentsio-fondo baten barruan sartuak, eta aukera ematen dute kapital edo pentsio bat eratzeko, kapitalizazioko finantza-sisteman baten bidez, aldizkako, ezohiko edo bi mota horietako ekarpenak eginez. Ekarpene horien bidez osatzen dira onuradunen erretiroa, ezintasun iraunkorra, mendekotasuna edo heriotzagatiko prestazioak.

**4. Pentsio-planaren izena eta haren identifikazio-zenbakia erregistro berezian**

ANDALUZIAKO EKONOMIALARIEN KONTSEILUA, AUTONOMOENTZAKO ENPLEGUKO PENTSIO-PLAN SINPLIFIKATUA (aurrerantzean "Pentsio Plana"), inskribatua Aseguruen eta Pentsio Fondoaren Zuzendaritza Nagusiaren erregistro berezian, N5548 zenbakiaz.

**5. Pentsio-fondoaren izena eta haren identifikazio-zenbakia erregistro berezian**

Pentsio Plana dago Kutxabank Pentsioak Enplegua Pentsio Fondoaren barruan, inskribatua Aseguruen eta Pentsio Fondoaren Zuzendaritza Orokorren administrazio-erregistro berezian, F2204 zenbakiaz.

**6. Planaren sustatzailearen, erakunde kudeatzailearen eta gordailuzainaren izenak, eta haien identifikazio-zenbakiak dagozkien erregistro berezietan**

- **Sustatzailea:** Ekonomialarien Elkargo Profesionalen Andaluziako Kontseilua.
- **Erakunde gordailuzaina:** Cecabank SA, inskribatua Aseguruen eta Pentsio Fondoaren Zuzendaritza Nagusiaren pentsio-fondoaren erakunde gordailuzainaren erregistro berezian, D0193 zenbakiaz.

- **Erakunde kudeatzailea:** Kutxabank Pentsioak SAU, Pentsio Fondoen Erakunde Kudeatzailea, inskribatua Aseguruaren eta Pentsio Fondoen Zuzendaritza Nagusiaren pentsio-fondoen erakunde kudeatzaileen erregistro berezian, G0234 zenbakiaz.

## 7. Inbertsio-politikaren deskribapena

Gehienez ere ondarearen % 30 inbertituko da errenta aldakorrean, inoiz ez % 15 baino gutxiago; gainerako ondarea inbertituko da nagusiki ageriko edo eperako gordailuetan, eta errenta finko publikoan edo pribatuan. Egoeraren arabera, eta gerora, % 2 gaingitu ahal izango da errenta aldakorraren gehienekoa, gehienez ere hilabeteko epe jarraituan.

## 8. Jasangarritasun-arriskua

Ingurumen-, gizarte- edo gobernantza-arloan izandako gertaera oro, gertatuz gero kalte erreala edo posiblea eragin dezakeena inbertsio baten balioan.

Pentsio-fondoa kudeatzean, aintzat hartzen dira jasangarritasun-arriskuak inbertsio-erabakiak hartzean. Jasangarritasun-arriskua ebaluatzean, inbertsio-erakundeak (zeinaren esku utzi duen inbertsioen kudeaketa erakunde kudeatzaileak) erreferentziazat hartzen du inbertitzen duen aktiboen jaulkitzaileek argitaratutako informazioa, bai eta IGG arriskuen ebaluazioa ere (kalifikazio-konpainiek edo inbertsio-erakundeak beren metodologia erabilia eginiko ebaluazioa).

Erakunde kudeatzaileak hainbat jardun-lerroren bidez integratzen du jasangarritasun-arriskua bere erabakietan: bazterketa-irizpideak, balorazio-irizpideak, tematiketan oinarritutakoak, inpaktu negatiboen ebaluazioa eta jabetza aktibo baten egikaritzea.

Inbertsioen jasangarritasun-arriskua faktore hauen mende dago: jaulkitzaile-mota, jarduera-sektorea edo haren kokapen geografikoa. Hori horrela, jasangarritasun-arrisku handiagoa duten inbertsioek jaitsiera bat eragin dezakete azpiko aktiboen prezioan, eta, beraz, negatiboki eragin pentsio-fondoaren partaidetzaren balio likidagarrian.

Hortaz, erakunde kudeatzaileak, inbertsio-erakundearen bitartez, kontuan hartzen ditu jasangarritasun-faktoreei buruzko erabakietan izandako gorabehera kaltegarri nagusiak (gorabehera materialak edo behar bada materialak).

## 9. Errentagarritasun historikoak

Pentsio-plan sortu berri bat denez, ez dago errentagarritasun historikorik.

2026ko ekitaldian metatutakoa	% -1,33
2025ko ekitaldia	%3,36

## 10. Errentagarritasun-bermerik eza

Pentsio-plana banakako sistemakoa eta ekarpen zehatzekoa da, eta soil-soilik zehazten da partaideek egin beharreko ekarpenaren zenbatekoa. Errentagarritasuna lortzen da pentsio-fondoa osatzen duten finantza-aktiboen errendimenduaren arabera. Beraz, ez da bermatzen errentagarritasunik, eta galerak ere izan daitezke.

## 11. Komisioak eta gastuak

Pentsio-planari komisio hauek aplikatuko zaizkio:

Kontzeptua	Planaren ondareari aplikatzen zaizkion urteko komisioak
Zuzeneko kudeaketa-komisioa	% 0,45
Zuzeneko gordailu-komisioa	% 0,05

Era berean, pentsio-planari fondoaren gastu jakin batzuk egotzi ahal izango zaizkio, planari egotz dakioken zatian eta aplikatzekoa den araudian ezarritako baldintzetan. Hona hemen gastu horiek: auditoretza eta beste zerbitzu profesional batzuk, inbertsio-eragiketen likidazioa, eta fondoaren eta planaren kontrol-batzordearen gastuak.

Kutxabank Gestión SGIICK kudeatzen dituen inbertsio-fondoetan egindako inbertsioei dagokienez, inbertsio-erakundeak pentsio-fondora itzultzen du jasandako kudeaketa-komisioaren % 100a.

## 12. Eskubide kontsolidatuak itzultzeko ezintasuna, kobratzea ahalbidetuko duen egoera gertatu ezean

Partaideek ezin izango dituzte erabili beren eskubide kontsolidatuak, salbu eta gizarte-aurreikuspeneko beste tresna batean edo batzuetan integratzeko denean, aplikatzekoa den araudian aurreikusitako moduan eta baldintzetan, edo pentsio-planak estalitako kontingentzia bat eragiten duen gertakari bat gertatzen denean, edota likideziako edo aurretiazko erabilerako salbuespenezko beste kasu batzuetan.

## 13. Estalduran sartutako kontingentziak

Planak ez ditu estaliko hura kontratatu aurreko kontingentziak. Partaideari gerta dakizkiokeen kontingentziak estaliko ditu, haren egoera pertsonalaren arabera. Besteak beste:

### ▪ Partaidearen erretiroa eta erretiroari dagokion prestazioa

Erretiroztat hartuko da Gizarte Segurantzaren dagokion araubidean aurreikusitakoa. Etendako partaide orok prestazio hori jasotzeko eskubidea izango du, erretiroa hartzeko unean.

Partaideak erretiroa hartzerik ez duenean, kontingentzia gauzatutzat hartuko da 65 urte betetzean, partaideak lan-jarduerarik egin ez edo jarduera utzi duenean, eta erretiro-kontingentziarako kotizatzen ari ez denean Gizarte Segurantzaren ezein araubidetan.

Hala ere, 60 urtetik aurrera, aurreratuta ahal izango da **erretiroari dagokion prestazioa jasotzea**, kasu hauetakoren batean:

- Bertan behera uztea Gizarte Segurantzaren alta ematea eragin duen jarduera oro, nahiz eta jarraitu ahal izango duen altarekin parekatutako egoeran, hala badagokio, Gizarte Segurantzaren araubideren batean.
- Ez betetzea Gizarte Segurantzaren dagokion araubidean erretiro-prestazioa lortzeko baldintzak aurretiazko erabilera eskatzeko unean.

Ezin izango da aurreratu erretiro-prestazioa partaideak erretiroa hartzerik ez duenean. Kasu horretan, kontingentzia gauzatutzat hartuko da 65 urte betetzean, partaideak lan-

jarduerarik egin ez edo jarduera utzi duenean, eta erretiro-kontingentziarako kotizatzen ari ez denean Gizarte Segurantzaren ezein araubidetan.

- **Ezintasuna**

Ezintasuntzat hartuko dira Gizarte Segurantzaren organo eskudunak, organo baliokideak edo Gizarte Arloko Auzitegiek halakotzat hartutako egoerak, eskubidea ematen dutenak jasotzeko ohiko lanbiderako ezintasun iraunkor osoko, lan orotarako ezintasun iraunkor absolutuko edo baliaezintasun handiko prestazioak.

- **Heriotza**

Heriotzatzat hartuko da partaidearen, etendako partaidearen edo partaide onuradunaren heriotza edo heriotza-aitorpen ofiziala, eskubidea ematen duena jasotzeko alarguntasun- edo zurtasun-prestazioak, edota beste jaraunsele edo pertsona batzuen aldeko prestazioak ere ezartzeko.

- **Mendekotasun larria edo mendekotasun handia**

Partaidearen mendekotasun larria eta mendekotasun handia, kontuan izanik autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean eta hura garatzeko arauetan ezarritakoa.

Balorazioa egitean, mendekotasun-maila egiaztatu beharko du kasu bakoitzean eskumena duen erakundeak.

#### **14. Ekarpenen eta prestazioen arteko bateraezintasunak**

Oro har, ezin izango da aldi berean partaide eta onuradun izan pentsio-plan bateko kontingentzia berberagatik edo hainbat pentsio-planetako kidea izanik, eta bateraezinak izango dira kontingentzia berberagatik aldi berean ekarpenak egitea eta prestazioak kobratzea.

Erretiroa hartzen duen unetik aurrera, partaideak jarraitu ahal izango du ekarpenak egiten pentsio-planean. Hala ere, behin erretiroaren prestazioa kobratzen hasita, ekarpenak soil-soilik egingo dira heriotza- eta mendekotasun-kontingentzietan.

Araubide bera aplikatuko da partaideak erretiroa hartzerik ez duenean, 13. puntuaren lehen atalean ezarritakoaren arabera. Kasu horietan, gutxienez 65 urte dituen partaideak (erretiroa hartuz gero) edo 60 urte dituenak (erretiroari dagokion prestazioaren kasuan) ekarpenak egiten jarraitu ahal izango du. Dena dela, behin erretiroari dagokion prestazioa kobratzen edo aurrerakina jasotzen hasita, ekarpenak soilik egingo dira heriotza- eta mendekotasun-kontingentzietan.

Aurreko paragrafoetan aipatutakoa gorabehera, baldin eta, prestazioa kobratzen hasi edo hura kobratu ondoren, onuradunak alta hartzen badu berriro jarduera berean edo beste batean Gizarte Segurantzaren araubide batean, erretiro-ekarpenei berrekin ahal izango die, prestazioa osorik jaso duenean edo kobrantza eten duenean, eskubide ekonomiko gerakinak espresuki esleituta ondorengo erretiroari.

Erretiro malguan, erretiro aktiboan edo erretiro partzialean dagoen partaideak (aurreikusiak urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 213.1 artikulua bigarren paragrafoan eta 214. eta 215. artikuluetan) jarraitu ahal izango du ere pentsio-planera ekarpenak egiten, erretiro-kontingentziara bideratzeko, eta bateragarria izango da hori prestazioak kobratzearekin.

Erretiroaren prestazioa aurreratzen bada, onuradunak ekarpenei berrekin ahal izango die gerta daitekeen edozein kontingentziatarako, erretiroa barne, hura osorik jaso duenean edo kobrantza eten duenean, gerakina espresuki esleituta kontingentzia horiei.

Gizarte Segurantzaren dagokion araubideak onartutako ohiko lanbiderako ezintasun iraunkor osoa, lan orotarako ezintasun iraunkor absolutua edo baliaezintasun handia duten pertsonen ekarpenak egin ahal izango dituzte pentsio-planetan interesdunari gerta dakizkiokeen beste kontingentzia batzuk estaltzeko, kontuan harturik honako hau:

- Erretiroa hartzeko aukerarik izan ezean, kontingentzia hori gertatutzat joko da interesdunak 65 urte betetzean. Aurrekoa aplikagarria izango da ere Gizarte Segurantzaren dagokion araubideak ezintasunagatiko erretiroa aurreikusten duenean eta ezintasun hori sortzen denean erretiroa hartzeko ohiko adinera iritsi aurretik.
- Laneko ezintasun-kontingentzia sortzean, partaideak jarraitu ahal izango du pentsio-planari ekarpenak egiten, eta ezintasunari dagokion prestazioa kobratzeko eskaera egin ahal izango du ondoren.
- Ezintasun iraunkoragatiko pentsio-plan baten prestazioaren onuradunak pentsio-planetarako ekarpenei berrekin ahal izango die, gerta daitekeen beste edozein gertakizunetarako, hura osorik jaso edo kobrantza eten ondoren, gerakina espresuki esleituta gerta daitezkeen beste kontingentzia batzuei.

#### **15. Likideziako eta aurretiazko erabilerako salbuespenezko kasuak**

Gaixotasun larrien edo iraupen luzeko langabeen kasuan, salbuespen gisa eta dagokion araudiak ezarri bezala, eskubide kontsolidatuak gauzatu ahal izango dira, osorik edo zati batean, pentsio-planak ezarritako zehaztapenen arabera eta zehaztapen horien baldintza eta mugen barruan.

Bateraezinak izango dira gaixotasun larri edo iraupen luzeko langabeziagatiko eskubide kontsolidatuak jasotzea eta edozein pentsio-planetan ekarpenak egitea, bi egoera horiek iraun bitartean.

Partaideak kontingentzia gertagarri orotarako ekarpenei berrekin ahal izango die, eskubide kontsolidatuak osorik jasotzean edo kobrantza etetean, gerakina esleituta espresuki kontingentzia horietara.

Gainera, aurretik erabili ahal izango du gutxienez hamar urteko antzinatasunez eginiko ekarpenei dagozkien eskubide kontsolidatuen zenbatekoa, araudian ezarritako baldintzetan. Kasu horretan, eskubideak jasotzea bateragarria izango da planetan kontingentzia gertagarrietarako eginiko ekarpenekin, araudian aurreikusitako baldintzetan.

#### **16. Prestazioak: eskabideak eta kobratzeko moduak**

Onuradunak edo haren lege-ordezkariek prestazioa eskatu beharko dio erakunde kudeatzaileari, pentsio-planaren zehaztapenetan ezarritakoaren arabera.

Eskaera horretan, onuradunak edo haren lege-ordezkariek adieraziko du nola nahi duen kobratu prestazioa, eta dagokion akreditazio-dokumentazioa aurkeztuko du, zehaztapenetan ezarritakoaren arabera.

Era berean, eskubide kontsolidatuak partzialki kobratzen direnean estalitako kontingentziengatik edo likideziako edota aurretiazko erabilerako salbuespenezko kasuengatik, eskaeran adieraziko da jaso nahi diren eskubideak, halakorik izatekotan, dagozkion 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen edo ondoren eginiko ekarpenei. Ekarpen bat baino gehiago egonez gero partaideak edo onuradunak adierazitako konpartimentuan (hau da, 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen edo ondoren), irteera emango zaie ekarpen zaharrenei dagozkien eskubideei, likideziako salbuespenezko kasuetan izan ezik (kasu horietan, ekarpen berrienen eskubide kontsolidatuak likidatuko dira lehenik).

Prestazioa izan daiteke kapital bakarrekoa, errentakoa edo mistoa, edo horiez bestelakoa, aldizkakotasun erregularrik gabeko ordainketa gisa, partaideak aukeratutakoaren arabera, legeriaren eta zehaztapenen arabera.

Prestazio ekonomikoa ordainduko da araudian jasotako gehieneko epean, kontatzen hasita izapide guztiak egingo diren eta erakunde kudeatzaileari dokumentazio guztia entregatuko zion egunetik.

Prestazioak errenta moduan jasotzeko, egiaztatu egin beharko da onuraduna bizirik dagoela, haren bizi-agiria urtero aurkeztuta edo egokia den beste modu bat erabilita.

Salbuespenezko kasuetan prestazioak eta eskubide kontsolidatuen likidezia aitortzeko, planaren posizio-kontuaren balioa erabiliko da, zehaztapenetan ezarritakoaren arabera. Horrela, errentek eta data geroratuko ordainketek izango dute ordainketa-eguneko likidazio-balioa. Gainerako prestazioek, likideziako edo aurretiazko erabilerako salbuespenezko kasuek hartuko dute eragiketa horien egunean eskuragarri dagoen argitaratutako azken likidazio-balioa.

## **17. Legeria aplikagarria, zerga-araubidea eta ekarpenen mugak**

### **17.1 Legeria aplikagarria**

Pentsio-plana arautzen dute azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Pentsio Planen eta Fondoan Legearen testu bateginak eta otsailaren 20ko 304/2004 Errege Dekretuaren bidez onartutako Pentsio Planen eta Fondoan Araudiak, bai eta pentsio-planaren zehaztapenek eta aplikagarriak diren gainerako lege xedapenek ere.

### **17.2 Zerga-araubidea**

Produktu honi aplikatu beharreko zerga-araubideak kontuan izango du partaidearen edo onuradunaren zerga-egoitzan unean-unean aplika daitezkeen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) araudia.

Oro har, eginiko ekarpenek eskubidea emango dute ekarpen-egilearen PFEZren zerga-oinarri orokorra murrizteko, muga kuantitatibo eta kualitatibo batzuen barruan, eta muga horiek alda daitezke zerga-egoitzan aplikagarria den araudiaren arabera.

Bestetik, ekarpenek, heriotzakoak barne, zergak ordainduko dituzte lan pertsonalaren errendimendu gisa. Prestazioaren hartzaileri aplikatzekoa den araudiaren eta hura jasotzeko moduaren arabera (kapital edo errenta modura), murrizketaren bat egin ahal izango da errendimendua kalkulatzean.

### **17.3 Ekarpenen mugak**

Pentsio-planaren partaidearen ekarpenek, zenbatu daitezkeen beste ekarpen batzuekin batera, ezin izango dute gainditu inola ere legez ezarritako muga: gaur egun, 5.750 euro urtean (horren barruan sarturik edozein pentsio-planerako 1.500 euroko muga orokorra, gehi autonomoen enpleguko pentsio-plan sinplifikaturako ekarpenen 4.250 euroko muga), eta bateraezinak izango dira likideziako salbuespenezko kasuetako prestazioekin eta eskubide kontsolidatuak jasotzearekin, aplika daitezkeen araudian aurreikusi bezala.

Desgaitasun bat duten pertsonentzako araubide bereziaren barruan eginiko planetan, ekarpenak zuzenean egin ahal izango ditu partaideak berak, 24.250 euro/urte mugarekin. Enpleguko pentsio-planaren ezaugarriak direla-eta, senitartekoen ezingo dute ekarpenik egin.

Bere jarduera uzten duen eta, ondorioz, autonomia izateari uzten dion autonomoak ezin izango dio ekarpenik egin planari.

Finantza-mugak ez betetzea izango da arau-hauste oso larria, eta administrazio-zigorrek izango ditu. Gehieneko ekarpenaren gaineko soberakinak erretiratu egin beharko dira soberakina gertatu eta hurrengo urteko ekainaren 30a baino lehen, zigorrik jaso nahi ez bada.

Itzuli egingo da partaidearen eskubide kontsolidatuaren kargura benetan soberan emandako zenbatekoa. Ekarpen-soberakinari egotz dakioken errentagarritasunak, positiboa bada,

pentsio-fondoaren ondarea handituko du; negatiboa izanez gero, partaidearen kontura izango da.

## **18. Eskubide kontsolidatuen mugikortasuna**

Partaidearen eskubide kontsolidatuak, aplikatu beharreko araudian eta zehaztapenetan ezarritako baldintzetan, mobilizatu ahal izango dira partaidearen alde bakarreko erabakiz, soil-soilik beste enpleguko pentsio-plan sinplifikatu batzuetara, arautuak azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Pentsio Planen eta Fondoaren Legearen testu bateginaren 67.1. a) eta c) artikuluan.

Norberaren konturako langile edo autonomo izateari uztean, bere eskubide kontsolidatuak mobilizatu ahal izango ditu Planetik partaide den enpresa sustatzailearen enpleguko pentsio-planera, enpresa sustatzailearen pentsio-planaren zehaztapenek hori onartuz gero.

Eskubideak mobilizatzean, eskubideak transferituko dira partaideak aukeratutako enpleguko pentsio-planera, legeak ezarritako epearen barruan, baldin eta bete egin baditu indarrean dagoen araudiak eta zehaztapen hauek ezarritako baldintzak. Eskaera-datatzat hartuko da eskaera erakunde kudeatzaile hartzailearen egoitzan jasotzen den eguna.

Eskubideak mobilizatzeke, traspaso-eskaera helaraziko dio partaideak erakunde kudeatzaile hartzaileari. Dokumentazio hau gehituko zaio partaideak sinatutako mobilizazio-eskaerari:

- a) Mobilizazioa zer plan eta fondotatik egin nahi den eta zer kopuru mobilizatu nahi den adieraziko duen agiria.
- b) Erakunde hartzaileari emandako baimena, partaidearen izenean jatorriko erakunde kudeatzaileari mobilizazioa eska diezaion, eta horretarako behar den finantza- eta zerga-informazio guztia.

Erakunde kudeatzaile hartzaileak eta jatorriko fondoaren kudeatzaileak eskubide kontsolidatuen traspasoa egingo dute, araudian ezarritako epeetan eta dagozkion izapideak eginda.

Eskubide kontsolidatuak partzialki mobilizatzean, partaideak eskaeran adieraziko du zer ekarpeni dagozkion mobilizatu nahi dituen eskubide kontsolidatuak: 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen edo ondoren eginiko ekarpenak. Mobilizatu beharreko eskubide kontsolidatuak kalkulatu dira proportzionalki, kontuan izanik data horren aurretik eta ondoren eginiko ekarpenei dagozkien, ekarpen horiek daudenean eta partaideak noizkoak diren adierazi ez duenean (2007ko urtarrilaren 1a baino lehen edo ondoren).

Sarrera-mobilizazioek izango dute sarrera-eguneko likidazio-balioa. Irteera-mobilizazioek izango dute betearazpen-datan eskuragarri dagoen argitaratutako azken likidazio-balioa.

## **19. Partaidearentzako oinarrizko datuak biltzen dituen dokumentu hau argitaratuta dagoen webgunea**

Partaidearentzako oinarrizko datuak biltzen dituen dokumentu hau eskuratzeko: [www.kutxabank.es](http://www.kutxabank.es).

## **20. Erakunde kudeatzailea gordailuzainarekin lotzen duen harreman-mota**

Ez dago loturarik erakunde kudeatzailearen eta erakunde gordailuzainaren artean, Merkataritza Kodearen 42. artikulua araberak.

## **21. Interes-gatazkak saihesteko eta loturiko eragiketetan gorabeherarik ez izateko prozedurak**

Erakunde kudeatzaileak lege ezarritako barne-prozedurak erabiliko ditu interes-gatazkak saihesteko eta loturiko eragiketetan pentsio-fondoaren interesak, ez beste inorenak, babesteko,

merkatuko prezio edo baldintza berdinetan edo hobeetan. Prozedura horiek jasota daude Portaerako Barne Erregelamenduan.

**Kontratu aurreko informazioa, 2019/2088 (EB) Erregelamenduaren 8. artikularen 1., 2. eta 2 bis zenbakietan eta 2020/852 (EB) Erregelamenduaren 6. artikularen lehen paragrafoan aipatzen diren finantza-produktuei buruzkoa**

**Inbertsio jasangarri** bat da ingurumen-edo gizarte-helburu batean laguntzen duen jarduera ekonomiko batean inbertitzea, baldin eta inbertsioak kalte esanguratsurik egiten ez badio ingurumen-edo gizarte-helburu bati eta inbertsioaren jomuga diren enpresek gobernantza oneko jardunbideak badituzte.

**EBren taxonomia** sailkapen-sistema bat da, 2020/852 (EB) Erregelamenduan jasotakoa, **ingurumen-ikuspegitik jasangarriak diren jarduera ekonomikoak** zerrendatzen dituena. Erregelamendu horrek ez du zerrendatzen gizarte-ikuspegitik jasangarria den jarduera ekonomikorik. Ingurumen-helburua duten inbertsio jasangarriak bat etor daitezke, ala ez, taxonomiarekin.

**Produktuaren izena:**  
Kutxabank Pentsioak Enplegua, Pentsio-Fondoa

**Erakunde juridikoaren identifikatzailea:**  
959800GGMSW7CB4P6N43

**Ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak**

Ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak		Inbertsio-helburu jasangarri bat du finantza-produktu honek?	
		Bai	Ez
<input type="checkbox"/>	<b>Ingurumen-helburua duen inbertsio jasangarri</b> ehuneko hau egingo du gutxienez: % ____	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>	EBren taxonomiaren arabera ingurumen-ikuspegitik jasangarriztat har daitezkeen jarduera ekonomikoetan	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>	EBren taxonomiaren arabera ingurumen-ikuspegitik jasangarriztat har ezin daitezkeen jarduera ekonomikoetan	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>	<b>Gizarte-helburua duen inbertsio jasangarri</b> ehuneko hau egingo du gutxienez: % ____	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>	Ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak sustatzen ditu, baina <b>ez du inbertsio jasangarririk egingo</b>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>



**Zer ingurumen- edo gizarte-ezaugarri sustatzen ditu finantza-produktu honek?**

Pentsio-fondo honek ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak sustatzen ditu [2019/2088 Erregelamenduaren (EB) 8. art.]. Pentsio-fondo honek sustatzen ditu gizartearekiko inbertsio arduratsurako (GIA) irizpideak: finantza-irizpideez gain, kontuan hartzen dira ingurumen- eta gizarte-irizpideak eta gobernantza onari loturikoak.

Pentsio-fondoaren xedea oinarritzen da Kutxabank Gestion SGIICren (inbertsio-erakundea) gizartearekiko inbertsio arduratsurako politikan, GIA Batzordeak definitzen eta gutxienez urtero berrikusten duena, eta Administrazio Kontseiluak onartzen duena. Inbertsio-erakundeak, bere erabaki- eta kontrol-mekanismoen bidez, ziurtatzen du inbertitzen duen erakundeek bete eta sustatu egiten dituztela printzipio hauek beren jardun-eremuan:

a) **Giza eskubideak eta lan-arlokoak errespetatzea:** Oinarrizko giza eskubide unibertsalak babestea eta errespetatzea, eta ez parte hartzea, ez zuzenean ezta zeharka ere, eskubide horien urraketan. Elkartzeko askatasuna errespetatzea, negoziazio kolektiborako eskubidea benetan aitortzea, behartutako lan-mota oro ezabatzen eta haurren lana desagerrarazten laguntzea, eta enpleguan diskriminazio-praktikak indargabetzen laguntzea. Genero-berdintasuna eta emakumeen nahiz nesken ahalduntzea bilatzea.

b) **Ingurumena eta biodibersitatea zaintzea:** Ingurumena babesteko duen prebentzioa bultzatzea, ingurumen-erantzukizuna indartzen duten ekimenak sustatzea, eta ingurumena errespetatzen duten teknologien garapena eta hedapena bultzatzea. Isuriak murrizteko ahalegina Pariseko Akordioaren helburuarekin bat datorren ebaluatzea: batez besteko tenperatura globalaren igoera mantentzea 2 °C-tik behera industriaurreko mailen gainetik. Babesa ematea *Task Force on Climate-Related Financial Disclosures* (TCFD) erakundearen gomendioei: lantalde horren zeregin da enpresek beren inbertitzaileei klima-aldaketaren arriskuei eta horiek kudeatzeko moduari buruzko informazioa eman diezaieten sustatzea, eta horrek laguntzen du areagotzen merkatuaren gardentasuna eta klimarekin lotutako arriskuen gaineko kontzientzia.

c) **Gobernantza Onaren politikak eta ustelkeriaren aurkako borroka:** Akziodunen eskubideak, gutxiengoarenak barne, errespetatuko dituen erakunde korporatiboa sustatzea. Enpresa-estrategia eta -politikak gauzatzeko moduan egongo diren kudeaketa-organoak sustatzea, aintzat hartuko dituztenak kontrol eta oreka egokiak, ikuskapen independentea, alderdi interesdun garrantzitsuen inplikazioa, epe luzerako helburuekin lerrokatutako ordainsari-sistemak, eta estatuko lege eta kodeak betetzea. Ustelkeria-mota oro errefusatzea, estortsioa eta eroskeria barne, eta jarduera horietan ez parte hartzea, ez zuzenean ez zeharka.

d) **Jardunbide egokiak zerga-arloan:** Enpresen barruan zerga-politika arduratsuak ezar daitezten sustatzea.

Gainera, NBEren Inbertsio Arduraturako Printzipioen sinatzaile den aldetik, Inbertsio-erakundeak bere politika ezartzeko esparru gisa hartu du mailaz maila aurrera egitea hurrengo epigrafeetan, ingurumeneko, gizarte- eta gobernantza oneko parametroak (IGG) txertatzeko inbertsio-jardunbide konbentzionaletan:

1. IGG irizpideak txertatzea inbertsioen prozesuan.
2. IGG faktoreak sartzea jabe modura definitutako jardunbide eta politiketan.
3. Gardentasuna erraztea IGG faktoreetan, eginiko inbertsioetan.
4. Bultzada ematea printzipio hauek finantza-sisteman garatzeari.
5. Batera lan egitea eta printzipio hauen inplementazio eraginkorra bultzatzea.
6. Informazioa ematea aldira printzipio hauen inplementazioan eginiko urratsei buruz.

## ○ Zer jasangarritasun-adierazle erabiltzen dira finantza-produktu honek sustatutako ingurumen- edo gizarte-ezaugarri bakoitzaren lorpena neurtzeko?

**Jasangarritasun-adierazleek** neurtzen dute nola lortzen diren finantza-produktuak sustatzen dituen ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak.

Pentsio-fondoarentzat definitutako estrategiaren arabera, zer baloretan inbertitu zehazteko, kontuan hartuko da fondoaren xedea, honako irizpide eta adierazle hauen arabera, nahiz eta aktibo-tipologia bakoitzari egokituta:

1. **Baztertzailak:** pentsio-fondoak ez du inbertituko arma eztabaidagarrien (pertsonek kontrako minak, barreiatze-bonbak, armamentu kimikoa edo biologikoa...) ekoizpenari lotutako aktiboetan, edo ingurumen-kalte larri-larriak, konponbide-neurririk hartu gabe, eragiten dituzten armen ekoizpenari loturikoetan. Gainera, ez da inbertituko erakunde jaulkitzaileetan, baldin eta lotura badute ustelkeria larriko jardunbideekin, adingabeen esplotazioarekin edo gerrek edota gatazkek eragindako norbanakoaren eskubideen urraketaekin; ezta egoitza paradisu fiskal batean duten jaulkitzaileekin ere.
2. **Baloraziokoak:**
  - 2.1. **Jaulkitzaileen ebaluazioa IGG arloan.** Pentsio-fondoak erabiltzen du inbertsioak hautatzeko *best in class* metodologia, kontuan izanik adierazle batzuk. Horretarako, Inbertsio-erakundeak IGG rating bat esleitzen die inbertitzen duen edo inberti dezakeen jaulkitzaileei. Prozesu horretan aztertzen da jaulkitzaileen jardura, honako adierazle hauek erabilia, eta pisu bat edo beste ematen die, kontuan izanik zer eremu geografikotakoak diren:
    - 2.1.1. **Errenta finko pribatu eta errenta aldakorreko inbertsioetan:**
      - Ingurumen-alorrean: karbono-intentsitatea [berotegi-efektuko gasen (BEG) guztizko intentsitatea, eskuragarri badago, edo karbono dioxidoaren (CO2) guztizko intentsitatea, berotegi-efektuko gasen tona metriko gisa kalkulatu, eskuragarri badago, edota CO2 isuria, enpresaren erreferentziako moneta eginiko salmenten milioi bat diru-sarrera bakoitzeko], hondakinen intentsitatea (salmentek sortutako hondakinak, hondakin arriskutsu zein ez-arriskutsuen tona metriko gisa kalkulatu, enpresaren erreferentziako moneta eginiko salmenten milioi bat diru-sarrera bakoitzeko) eta ur-intentsitatea (ur-erabilera guztizkoa, eskuragarri badago, edo ur-ateratzearen intentsitate guztizkoa, metro kubikoetan, enpresaren erreferentziako moneta eginiko salmenten milioi bat diru-sarrera bakoitzeko).
      - Gizarte-arloan: lan-gorabeherak, enplegatuen txandakate-ratioa eta emakumeen ehunekoa Administrazio Kontseiluan.
      - Gobernantza onaren alorrean: kontseilari independenteen ehunekoa Administrazio Kontseiluan eta Auditoria Batzordean.
      - Sustainability-en IGG ratinga.

2.1.2. Jaulkitzaile publikoen kasuan, neurrak oinarritzen da Sustainability Country Risk Rating(1)-ean, birkalkulatu egiten dena are gehiago haztatuz esku hartzen duten IGG faktoreak:

- Ingurumen-arloan: Kapital naturala eta ekoitzia:
  - Energia eta klima-aldaketa: Beren karbono-intentsitatea murrizten eta karbono gutxiagoko munduranzko trantsizioarako prestatzen ari diren herrialdeek gaitasun handiagoa izango dute epe luzera aberastasuna sortzeko.
  - Baliabideen erabilera: Baliabideak modu jasangarrian erabiltzen dituzten herrialdeek aurreikuspen hobek dituzte epe luzera aberastasuna sortzeko.
  - Gobernantza: Gobernantza eraginkorra duten herrialdeek eta zuzenbide-estatuak aukera gehiago dituzte kapital naturalaren eta ekoiztaren erabilera jasangarria eta zaintza bermatzeko.
- Gizarte-arloan: Giza kapitala:
  - Oinarrizko premiak: Giza kapitalaren garapena biztanleriaren oinarrizko premiei emandako erantzun-mailaren mende dago.
  - Osasuna eta ongizatea: Era berean, giza kapitala sor daiteke osasuntsu dauden biztanlerietan.
  - Ekitatea eta aukera: Pertsonak modu bidezkoan tratatzen dituzten ekonomiek, aukera berdinak ematen dituztenek (hezkuntza-aukerak barne), modu eraginkorragoan sortuko dute giza kapitala etorkizunean.
- Gobernantza onaren arloa: Kapital instituzionala:
  - Erakunde-sendotasuna: Erakundeen kalitateak, erregulazioek eta zuzenbide-estatuak eragin handia dute herrialde batek eskura dituen baliabideak eraginkortasunez erabiltzeko eta epe luzera aberastasuna sortzeko gaitasunean.
  - Eskubideak eta askatasunak: Zenbat eta handiagoa izan herritarren eskubide eta askatasunen babesa, orduan eta gehiago lagunduko dute aberastasuna sortzen.
  - Bakea eta egonkortasuna: Epe luzera aberastasuna sortzeko, bakea eta egonkortasun soziala/politikoak behar dira.

2.1.3. IKEen kasuan, pentsio-fondoak bere inbertsioak bideratzen ditu Morningstar barometroan IGG puntuazio onena duten inbertsioetara.

Adierazle hauek alda daitezke esparru bakoitzean duten garrantziaren eta datuen estaldura erabilgarriaren arabera, bakoitzari pisu bat emanez, kontuan izanik jaulkitzaile bakoitzaren sektorearen faktore esanguratsuenak.

2.2. Klima-aldaketari buruzko Pariseko Akordioaren helburuekin lerrotzea.

2.3. IGG eztabaidak kudeatzea (Sustainability-en albisteen eta eztabaiden bidez nagusiki).

## ● Zeintzuk dira finantza-produktuak zati batean bete nahi dituen inbertsio jasangarrien helburuak, eta nola laguntzen du inbertsio jasangarriak helburu horiek betetzen?

Pentsio-fondoak neurri batean lortu nahi dituen inbertsio jasangarrien helburuak lotuta daude ingurumen- eta gizarte-gaiak hobetzen laguntzarekin, enpresa jakin batzuetan inbertituz; hau da, Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuetan (GJH) zehaztutako gizarte- eta ingurumen-arazo nagusiak konpontzea helburu duten enpresetan.

Inbertsio jasangarritzat jotzen diren aktiboak identifikatzeko, zorroaren talde kudeatzaileak kontuan izango du 2019/2088 (EB) Erregelamenduan jasotako inbertsio jasangarrien definizioa. Hala, inbertsio bat jasangarria izango da premisa hauetako bat betetzen badu:

- I. Jaulkitzaile/jaulkipen bat jasangarria izango da baldin eta haren jarduerak inpaktu esanguratsu bat badute GJHetan eta erakundeak kudeaketa orokor egoki bat egiten badu ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-arloetan, baita berariaz helburu jasangarriak finantzatzen badira ere (bonu berdeak eta jasangarriak, bonu sozialak eta jasangarritasunari loturikoak...).
- II. Gainera, jaulkitzaile/jaulkipen bat jasangarria izango da baldin eta haren kudeaketa orokorra bikaina bada ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-arloetan.

IKEen kasuan, kontuan izango da ere erakunde horiek aitortutako inbertsio jasangarri maila.



## Zer dela-eta ez diete finantza-produktuak zati batean gauzatu nahi dituen inbertsio jasagarriek kalte nabarmenik eragiten ingurumeneko edo gizarteko inbertsio jasagarriko helburuei?

Oro har, inbertsio jasagarrietan, ingurumen- edo gizarte-helburuei kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioa lotuta dago jasagarritasun-faktoreei buruzko inbertsio-erabakien kontrako gorabehera nagusien dibulgazioarekin (pentsio-fondoak aintzat hartzen dituen faktoreak).

### *Nola hartu dira kontuan jasagarritasun-faktoreen gaineko kontrako gorabeheren adierazleak?*

Inbertsio-erakundeak aztertzen ditu pensio-fondoak eginiko inbertsioen kontrako jasagarritasun-inpaktuak, kontrako gorabeheren adierazleen bilakaeraren bidez. Ingurumen- edo gizarte-inpaktuak handitzeagatik edo konpromisoak edo politikak ez betetzeagatik kontrako gorabehera esanguratsu bat identifikatzen bada, horren arrazoiak ebaluatzen dira eta, beharrezkoa izanez gero, mitigazio- eta zuzenketa-ekintzak gauzatu. Neurri horiek izan daitezke inbertsio gehigarriak ez egitea, desinbertsioa, espozioa murriztea edo behaketa jartzea. Neurriak osa daitezke, hala badagokio, jabetza aktiboa gauzatuz, inplikazio-ekintzen bidez; hala nola elkarrizketa eta dagokion boto-eskubidea erabiltzea inbertsioaren jomuga den konpainiako partaidetzaren arabera.

### *Nola egokitzen dira inbertsio jasagarriak Enpresa Multinazionalerako ELGaren Gidalerroetara eta enpresei eta giza eskubideei buruzko Nazio Batuen Printzipio Gidarietara?*

Inbertsio-erakundeak jaulkitzaileak aztertzean, kontuan hartzen ditu Enpresa Multinazionalerako ELGaren Gidalerroak (governuek enpresa multinazionaleri eginiko gomendioak, enpresa-jokabide arduratsu baterako printzipio eta arauak biltzen dituztenak) eta enpresei eta giza eskubideei buruzko Nazio Batuen Printzipio Gidariak, helburutzat dutenak esparru orokor bat eskaintzea, enpresa-jardueran giza eskubideen aurkako inpaktuen arriskuari aurre egiteko.

“Kalte esanguratsurik ez eragiteko” printzipioa ezarri du EBren taxonomiak, eta irizpide espezifikoak jaso ditu. Printzipio horren arabera, taxonomiara egokitzen diren inbertsioek ez diete kalte handirik egin behar EBren taxonomiaren helburuei. EBk ingurumen-ikuspegitik jasagarriak diren jarduera ekonomikoetarako ezarritako irizpideak betetzen dituzten finantza-produktuaren azpiko inbertsioei bakarrik aplikatu behar zaie “kalte esanguratsurik ez eragiteko” printzipioa. Finantza-produktuaren azpiko gainerako inbertsioek ez dituzte kontuan hartzen EBren irizpideak ingurumen-ikuspegitik jasagarriak diren jarduera ekonomikoetarako. Beste edozein inbertsio jasagarri ere ez die kalte esanguratsurik egin behar helburu sozialei eta ingurumenekoei.



## Kontuan hartzen ditu finantza-produktuak jasagarritasun-faktoreei loturiko kontrako gorabehera nagusiak?



- Bai** Inbertsio-erakundeak, pensio-fondo honetarako, kontuan hartzen ditu kontrako gorabehera nagusiak; hau da, inbertitzen den enpresek ingurumenean edo gizartean eragiten dituzten inpaktu negatiboak. Hala, kontuan hartzen ditu EBren arabera garrantzitsuenak diren adierazleak, bai ingurumen-arloean (gas-isuriak, biodibertsitatea, ura, hondakinak...) bai gizarte-arloan (giza eskubideak, armak, generoa...). Erabilitako metriken inpaktua inbertsio-erabaketan txertatzen da, bazterketa- edo balorazio-irizpide gisa, edo tematiketan bitartez eta jabetza aktiboa gauzatzean, halako moldez, non kontrola daitekeen inbertsioen bizitzan zehar gizartean edo ingurumenean izango den inpaktu negatiboa. Kontrako Gorabehera Nagusiei buruzko informazioa sartuko da pensio-fondoaren Aldizkako Informazio Publikoan. Informazio gehiago: [www.kutxabank.es](http://www.kutxabank.es)/[www.cajasur.es](http://www.cajasur.es), “Pentsio-planak” atalean,
- Ez** “Jasagarritasun-arloari buruzko informazioa”.

### Zer inbertsio-estrategia erabiltzen du finantza-produktu honek?

Produktuaren inbertsio-estrategiak prozesu zorrotz bati jarraitzen dio, uztartuz, alde batetik, pensio-fondoaren irizpide ekonomiko-finantzarioen eta arrisku-irizpideen analisisia eta, bestetik, babestu nahi diren ingurumen- eta gizarte-ezaugarriak.

Zer baloretan inbertitu erabakitzean, kontuan hartuko da pensio-fondoaren xedea, aintzat harturik haren inbertsio guztien erabakitze-prozesuan erabiltzen diren irizpideak, nahiz eta aktibo-tipologia bakoitzari egokituak:

**Kontrako gorabehera nagusiak** dira ingurumenari, gizarteari, lanari, giza eskubideen errespetuari eta ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako borrokari lotutako jasagarritasun-faktoreei buruzko inbertsio-erabakien gorabehera negatibo garrantzitsuenak.

**Inbertsio-estrategiak**, inbertsio-erabakiak hartzean, aintzat hartzen dituzten inbertsio-helburuak eta arriskuarekiko tolerantzia bezalako faktoreak.

1. **Baztertzailak:** pentsio-fondoak ez du inbertituko arma eztabaidagarrien (pertsonekin kontrako minak, barreiatze-bonbak, armamentu kimikoa edo biologikoa...) ekoizpenari lotutako aktiboetan, edo ingurumen-kalte larri-larriak, konponbide-neurririk hartu gabe, eragiten dituzten armen ekoizpenari loturikoetan. Gainera, ez da inbertituko erakunde jaulkitzaileetan, baldin eta lotura badute ustelkeria larriko jardunbideekin, adingabeen esplotazioarekin edo gerrek edota gatazkek eragindako norbanakoaren eskubideen urraketarekin; ezta egoitza paradisu fiskal batean duten jaulkitzaileekin ere. Irizpide baztertzailen zerrenda urtero berrikusten du gutxienez Inbertsio-erakundearen GIA Batzordeak, eta haren Administrazio Kontseiluak berresten du.
2. **Baloraziokoak:**
  - 2.1. Jaulkitzaileen ebaluazioa IGG arloan. Pentsio-fondoak erabiltzen du inbertsioak hautatzeko *best in class* metodologia, kontuan izanik adierazle batzuk. Horretarako, Inbertsio-erakundeak IGG rating bat esleitzen die inbertitzen duen edo inberti dezakeen jaulkitzaileei. Prozesu horretan, jaulkitzaileen jardura aztertzen da, honako adierazle hauek erabilia, eta pisu bat edo beste ematen die, kontuan izanik zer sektoretakoak diren:
  - 2.2. Klima-aldaketari buruzko Pariseko Akordioaren helburuekin lerrotzea.
  - 2.3. IGG eztabaidak kudeatzea (Sustainalytics-en albisteen eta eztabaiden bidez nagusiki).
3. **Tematiketan oinarrituak, aurreko irizpide baloratiboak sendotzeko modu gisa:** bonu berdeak, sozialak, inpaktu-inbertsioak, etab.
4. **Errenta aldakorraren kasu zehatzean, pentsio-fondoak jabetza aktibo bat gauzatzen du beren eskubide politikoak erabilia (boto-politika), baita bere elkarriketa-politikaren bitartez ere.** Horren emaitzek jaulkitzaileen ebaluazioa IGG arloan berrelikatzen dute.

● **Zeintzuk dira inbertsio-estrategiaren elementu lotesleak, finantza-produktu honek sustatzen dituen ingurumen- edo gizarte-ezaugarrietako bakoitza lortzeko inbertsioak hautatzeko erabiltzen direnak?**

Elementu lotesleak dira:

- Baztertzak, jada aipatu direnak eta pentsio-fondoaren inbertsio-unibertsioan eragiten dutenak.
- Jaulkitzaileei inbertsio-muga handiagoa edo txikiagoa ematen dieten barne-mugak, horiek baztertzera ere irits daitekeelarik, IGG adierazleetan erakusten duten jardueraren eta Garapen Jasangarrirako Helburuetan (GJH) duten eraginaren arabera.

Jaulkitzailearen kreditu-kalifikazioak alde aurretik definitutako inbertsio-mugak modulatuak dira; hau da, +/- % 20 gehigarri batean doitzen dira, aintzat harturik inbertsio-estrategiaren atalean azaldutako prozesuaren arabera esleitutako IGG kalifikazioa eta GJH-etako inpaktua, eta, bonu berde eta sozialen kasuan, haien inbertsioa sustatzen da % 20 handituz jaulkitzaileari esleitutako muga.

IKEtan inbertitzeko, barne-mugek eskatzen dute IKEtan inbertitzen duen zorroaren zatiak hiru Morningstar globoren edo gehiagoren batez besteko kalifikazioa izatea, edo inbertsio jasangarriaren batez bestekoa % 30ekoa edo handiagoa izatea.

Aurrez aipatutako barne-mugak dokumentu honen datan indarrean zeudenak dira eta aldatu egin daitezke, Inbertsio-erakundearen Kontrol Batzordeak onartuta eta Administrazio Kontseiluak berretsita.

● **Zein da inbertsio-estrategia hori aplikatu aurretik kontuan hartutako inbertsioen magnitudea murrizteko konprometitutako gutxieneko ehunekoak?**

Ez dago konpromisorik murrizteko inbertsioen magnitudea gutxieneko ehuneko batean.

● **Zein da inbertitzen den enpresen gobernantza onaren jardunbideak ebaluatzeko politika?**

Inbertsio-erakundeak jaulkitzaileak aztertzeko prozedurak ditu, eta inbertitzen duen konpainien gobernantza korporatiboa ebaluatzen du prozedura horien bidez. Azterketa horren emaitzaren arabera, erabaki dezake ez inbertitzea (kasuaren arabera, jaulkitzaile hori baztertuen zerrendan sartuta), desinbertitzea, esposizioa murriztea edo behaketan jartzea.

Era berean, neurri horiek osa daitezke, hala badagokio, jabetza aktiboa gauzatzuz, inplikazio-ekintzen bidez; hala nola elkarriketa eta dagokion boto-eskubidea erabiltzea, inbertsioaren jomuga den konpainiako partaidetzaren arabera.

**Gobernantza oneko**

jardunbideen barruan daude kudeaketa oneko egiturak, langileekiko harremanak, langileen ordainsaria eta betebeharrak fiskalak betetzea.



## Zein da finantza-produktu honetarako aurreikusitako aktiboen esleipena?


**Aktiboen esleipenak** adierazten du aktibo espezifikoetan eginiko inbertsioen ehunekoa.

IGG ezaugarriak sustatzeko aipatutako prozedurak, oro har, pentsio-fondoaren inbertsio guztiei aplikatzen zaizkie, tresna deribatuei, dibertsifikaziorako inbertsioei edo daturik ez duten inbertsioei eta pentsio-fondoaren likidezia kudeatzeko inbertsioei izan ezik. Dena dela, salbuespen horiek ez dute inoiz gaintutako pentsio-fondoaren zorroaren % 50. Beraz, pentsio-fondoaren zorroaren zati handienak bete egiten du aipatutako xedea.

Gainera, pentsio-fondoak inbertsio jasagarrien % 35eko gutxieneko ehunekoa du.

### ○ Nola lortzen ditu deribatuen erabilerak finantza-produktuak sustatzen dituen ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak?

Pentsio-fondoak ez ditu deribatuak erabiltzen aipatutako ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak sustatzeko.



Taxonomiara egokitzen diren jarduerak adierazten dira honako hauen ehuneko gisa:


- **Negoio-bolumena**, adierazten duena inbertitzen den enpresen jarduera ekologikoetatik datozen diru-sarreraren proportzioa.
- **Aktibo finkoko inbertsioa**, adierazten dituena inbertitzen den enpresek eginiko inbertsio ekologikoak; adibidez, ekonomia berde bateranzko trantsizioan.
- **Ustiapen-gastuak**, inbertitzen den enpresen ustiapen-jarduera ekologikoei dagozkienak.



### Zer neurritan egokitzen dira, gutxienez, ingurumen-helburua duten inbertsio jasagarriak EBren taxonomiara?

Pentsio-fondoaren inbertsio jasagarriek lagun diezaiokete 2020/852 (EB) Erregelamenduan eta hura garatzeko gainerako xedapenetan jasotako EBren ingurumen-taxonomiaren arabera ("EBren taxonomia") jasagarritzat hartzen den jarduera ekonomiko bati edo batzuei. Bereziki, inbertsio horien helburua izan daiteke klima-aldaketa txikitzea edo aldaketa horretara egokitzea. Fondo honen inbertsioen eta EBren taxonomiaren arteko lerrokatzearen gutxieneko ehunekoa % 0 da.

**Bi grafiko hauetan, berdez ikus daiteke EBren taxonomiara egokitzen diren inbertsioen gutxieneko ehunekoa. Metodologia egokirik ez dagoenez bonu subiranoek taxonomiarekiko duten egokitzapena zehazteko (\*), lehen grafikoak erakusten du finantza-produktuaren inbertsio guztiei dagokien taxonomiarekiko egokitzapena, bonu subiranoak barne; bigarren grafikoak, berriz, bonu subiranoak ez diren finantza-produktuaren inbertsioei dagokien taxonomiarekiko egokitzapena.**



Grafiko hauen ondorioetarako, "bonu subiranoek" esposizio subirano guztiak barne hartzen dituzte.

### Jarduera

**bideratzaileek** aukera ematen dute zuzenean beste jarduera batzuek ingurumen-helburu bati ekarpen nabarmena egin diezaioten.

### Trantsizio-jarduerak

dira oraindik karbono-isuri txikiko alternatibarik ez duten jarduerak eta, besteak beste, emaitza onenekin bat datozen berotegi-efektuko gasen isuri-mailak dituztenak.

## Zein da trantsizio-jardueretarako eta jarduera bideratzaileetarako inbertsioen gutxieneko proportzioa?

Pentsio-fondoaren inbertsio jasagarriek lagun diezaiokete 2020/852 (EB) Erregelamenduan eta hura garatzeko gainerako xedapenetan jasotako EBren ingurumen-taxonomiaren arabera ("EBren taxonomia") trantsizio-jardueratzen edo bideratzailetzen hartzen den jarduera ekonomiko bati edo batzuei. Pentsio-fondoak trantsizio-jardueretan eta jarduera bideratzaileetan egiten dituen inbertsioen gutxieneko ehunekoak % 0 da.



Ingurumen-ikuspegitik jasagarriak diren inbertsioak dira, **kontuan hartzen ez dituztenak** EBren taxonomiaren arabera ingurumen-ikuspegitik jasagarriak diren jarduera ekonomikoetarako irizpideak.



## Zein da EBren taxonomiarekin bat ez datozen ingurumen-helburuak dituzten inbertsio jasagarrien gutxieneko proportzioa?

EBren taxonomiarekin bat ez datozen ingurumen-helburuak dituzten inbertsio jasagarrien gutxieneko proportzioa ondarearen % 10 da pentsio-fondo honetan.



## Zein da gizarte-ikuspegitik jasagarriak diren inbertsioen gutxieneko proportzioa?

Gizarte-ikuspegitik jasagarriak diren inbertsioen gutxieneko proportzioa ondarearen % 10 da.



## Zer inbertsio sartzen dira "2. Beste batzuk" atalean eta zer helburu dute? Badago gutxieneko ingurumen- edo gizarte-bermerik?

IGG ezaugarriak sustatzeko aipatutako prozedurak, oro har, pentsio-fondoaren inbertsio guztiei aplikatzen zaizkie, tresna deribatuei, dibertsifikaziorako inbertsioei, daturik ez duten inbertsioei eta pentsio-fondoaren likidezia kudeatzeko inbertsioei izan ezik.

Gutxieneko ingurumen- edo gizarte-bermerik daude, pentsio-fondoak bazterketa-irizpideak dituelako (jada aipatuak). Irizpide horien arabera, ezin daiteke inbertitu Enpresa Multinazionalerako ELGaren Gidalerroak eta enpresei eta giza eskubideei buruzko Nazio Batuen Printzipio Gidariak betetzen ez dituzten jaulkitzaileetan, barne harturik Lanaren Nazioarteko Erakundearen lan-arloko oinarritzko printzipioei eta eskubideei buruzko Adierazpenean eta Giza Eskubideen Nazioarteko Gutunearan aipatzen diren oinarritzko zortzi hitzarmenetan ezarritako printzipioak eta eskubideak.



## Non aurki daiteke produktuari buruzko online informazio espezifiko gehiago?

**Produktuari buruzko informazio espezifiko aurki daiteke webgune honetan:** [www.kutxabank.es/www.cajasur.es](http://www.kutxabank.es/www.cajasur.es), "Pentsio-planak" atalean, "Jasagarritasun-arloko informazioa".

2026ko Martxoaren 31an eguneratua